

ISSN: 2530-6561
2018ko iraila
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak

Alfonso Dubois Migoya

XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak

Alfonso Dubois Migoya
UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua UPV/EHU
Posta elektronikoa: alfonso.dubois@ehu.eus

Aurkibidea

Sarrera	5
1. Pobreziaren aurrekariak eta gaur egungo egoera	5
2. Nork definitzen du pobrezia?	7
3. Pobreziaren gaur egungo paradigma	8
4. Pobreziaren neurketa	9
4.1. Zeharkako metodoa	9
4.2. Metodo zuzena edo oinarritzko beharren fokatzea	10
5. Pobrezia multidimentsionala	11
6. Pobrezia kontzeptuaren inflexio puntua	12
6.1. Pobrezia erlatiboa	13
6.2. Pobretze-prozesuak	13
6.3. Emakumeak eta pobrezia	14
7. Pobrezia fenomeno bizia da	16
8. Beste diskurtso baten beharra	17
Bibliografia	18

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.](#)

Egilea: Alfonso Dubois Migoya

hegoak zabalduz - 9. zk. 2018 iraila

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commonsen lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Pobrezia ezabatzea gaur egungo munduaren helburu nagusien artean ageri da, hala maila globalean nola lokalean. Hala ere, adostasun horrek pobrezia esatean ulertzen denari buruzko eztabaida sakona ezkututzen du. Hain zuzen ere, paradigma nagusiaren oinarrian, pobreziaren ikuspegia errentak zedarritzen du. Artikuluak paradigma horren ikuspegi kritikoa eskaintzen du, bereziki pobrezia neurtzeko erabiltzen dituen adierazleena. Bestalde, gaur egungo testuinguruan pobreziari aurre egiteko modu egokienari buruzko eztabaida irekitzen du. Pobrezia erlatiboa, pobretze-prozesuak eta pobreziaren feminizazioa terminoak oinarritzko elementu moduan aurkezten dira. Ikuspegi berri horretatik begiratuta, erakundeen eta joko arauen aldaketa eskatzen duen fenomeno bizia da pobrezia. Amaitzeko, pobreziaren bestelako diskurtso baten premiaz gogoeta egiten da, hain zuzen, hura sortzen duten egiturak eraldatzeko anbizioa izango duen eta aldaketa bultzatzeko gauza izango den diskurtso batez.

Hitz gakoak: pobrezia, pobrezia-adierazleak, pobrezia multidimentsionala, pobrezia erlatiboa, desparekotasuna.

Abstract: One of the main actual goals is to eradicate poverty, both at the global and local levels. Nevertheless, this consensus hides a major debate about what poverty means. In fact, the dominant paradigm approaches poverty just in terms of income. This essay provides a critical approach to this paradigm, particularly regarding the indicators it uses to measure poverty. Besides, it introduces the debate about what should be the best way to tackle it in the actual context. Relative poverty, impoverishment processes and the feminization of poverty are key terms. From this new perspective, poverty emerges as a new phenomenon that demands changing institutions and the rules of the game. The essay concludes with a reflection about a new discourse that aims to transform the structures that cause poverty, and which is capable of triggering change.

Keywords: poverty, multidimensional poverty, poverty indicators, relative poverty, inequality.

Sarrera

Pobreziaz hitz egiten denean, uste izaten da hitzaren esanahiari buruzko adostasuna dagoela. Gizartearen sektore batentzat begien bistakoa dirudi zein den pobreziaren errealitatea. Hala ere, artikulu honek zalantzan jartzen du ustezko adostasun hori, eta galdetzen du zer hartu behar dugun kontuan gaiari heldzerakoan. Izan ere, ez da hain egia argia pobrezia begien bistakoa dela, pobreak bere kabuz erakusten duela bere burua. Haren existentzia ez da beti agerikoa guztientzat, nahiz eta pairatzen dutenentzat begi bistakoa den, dudarik gabe. Pobreak eragin are handiagoa zuen garaietan, hura ezabatzea bigarren mailako kezka izan zen, axolagabetasuna, ahanztura eta ezkutaketa sortzen ez zuenean. Horren haritik, gaur egun aurretik ezagutzen ez ziren pobreziaren agerpen batzuk aurkitzen dira, errealitate berriak erakusten dituztenak.

Uste izaten da, halaber, pobrezia ezabatzearena gizarte globalak eta gizarte lokal bakoitzak bereganatuta duten konpromisoa dela. Baina ez dago hain argi noraino iristen den konpromiso hori. Datuek ez dute oinarririk ematen ezabatuko dela ziurtatzeko, nahiz eta aurrerapen handiak egin diren azken urteetan. Arazoa konpontzeko ez da nahikoa izango, batzuetan esaten den bezala, hazkunde ekonomiko soilak. Hain zuzen ere, helburu hori betetzeko konpromisoa indartu beharra aitortzen da, baina hori ez da gertatuko, besterik gabe, borondate onerako deia eginda. Konpromisoa berrindartzeko diskurtso sinesgarri eta akuilagarria behar da, pobrezia ezabatzea exijentzia handiagoz barneratuko duen proposamen kolektiboa.

Horregatik, garrantzitsua da nola definitzen den pobrezia eta nola egiten zaion aurre. Pobreziaren kategoria ez da sorkuntza modernoa; tradizio luzea du kultura gehienetan, eta modu askotan agertu izan da horietan. Gainera, haren esanahia bilakatu egin da denborak aurrera egin ahala, eta, horrenbestez, ez dago balio unibertsaleko pobrezia kontzeptu bakar bat. Pobrezia definitu izan da eta definitzen da gizarte bakoitzaren konbentzioen arabera. Edukien aniztasun horren barruan, bada guztiei komuna zaien muin bat: pobreak beti egiten die erreferentzia falta edo gabezia batzuei, eta pertsonen duintasuna arriskuan jartzen da horiek pairatzean¹.

1. Pobreziaren aurrekariak eta gaur egungo egoera

Pobrezia kontzeptuaren eta eskuragarri dauden baliabideen testuinguruaren arteko harremana ulertzea, bai eta gizartearen aldi bakoitzean nagusi diren balioak ulertzea ere, funtsezkoa da haren analisia egiteko. Perspektiba historikoz begiraturaz gero, duela gutxi arte, bi mende inguru, konponbiderik izan zezakeenik ezin pentsatuzko fenomeno gisa onartzen zuen gizateriak pobrezia, hura gainditzeko beharrezko ezagutzarik eta teknologiarik ez zegoelako. Pobrezia gizarteriari ezarritako egoera bat zen, eta pertsonak egoera horretan jaustea edo egoera hori saihestea haien jatorriaren, posizio sozialaren, adinaren edo sexuaren arabera zen kasurik gehienetan, nahiz eta zoriak ere eragina izan zezakeen.

XVIII. mendean, pobrezia garaitu egin daitekeela hautematen hasten da, aurrerapen ekonomikoari esker, hau da, gizakien beharrak asetzeko baliagarri diren ondasunen eta zerbitzuen kopurua handitzeko aukerari esker. Ekonomista klasikoen ustez, pobrezia analisi ekonomikoaren kategoria zentrala zen, eta Adam Smithen zioen ezein gizarte ezin dela aberats eta zoriontsua izan, gizarte horretako kide gehienak pobreak eta behartsuak izanez gero.

Alabaina, XIX. mendearen amaiera arte, Boothek eta Rowntreek Erresuma Batuan egindako ikerketak arte², pobrezia ez zen ikerketa zientifikorako gaitzat hartu. Haien egindako pobrezia-atalasearen definizioak,

-
- 1 CLACSO/CROPSek argitaratutako Glosarioa agiri bikaina da lan honen edukiak zabaltzeko. Modu argi eta laburtuan pobreziarekin zerikusia duten termino ia guztiak jasotzen ditu. Ikus: SPICKER, Paul, Sonia Alvarez Leguizamón eta David Gordon [arg.] (2009); *Pobreza. Un glosario internacional*.
 - 2 Boothek (1892-1897), *Life and Labour of the People of London*, izan zen lehen ahalegina lehen eskuko behaketako elementuak pobreziaren hedadura neurtzeko ahalegin sistematiko batekin konbinatzeko. 1901ean, Rowntreek probintzietako hiri tipiko bateko egoera, York, Boothek Londresen aurkitutako emaitzekin alderatu zuen. Aparteko garrantzia du pobrezia estandarrek zehazteko egin zituen elikadura eskakizunen eta beste gutxienezko batzuen kalkulak.

pertsonak bizirik irauteko behar duten gutxieneko errenta ezartzean oinarritua, markatu du pobrezia buruz geroztik egin diren ikerketen garapena.

Pobrezia ikerketa XX. mendearen azken hamarkadetan bultzatu zen, pobrezia fenomenoari buruzko kezka azaleratu zenean. Hala ere, aurre egiteko modua desberdina izan da garatuak deitzen diren herrialdeei buruz aritzean eta gutxiago industrializatutako edo pobretutako herrialdeetan planteatu denean. Lehenengoetan, neurri aringarriak bilatzen ziren, eta bigarrenetan hura izateko egoera gisa onartzetik abiatzen zen. Dena dela, bada ezaugarri komun bat bi kasuetan, pobrezia fenomenoaren susperraldia edo "berraurkikuntza", horien ikerketa eta pobrezia aurre egiteko politikak bultzatu dituenak. Akulu izaera hori etenik gabekoa izan da: interesik gabeko aro luzeen ondoren, pobrezia buruzko kezka indarrez suspertu da, errealitateak ordura arte haren kontzientziarik ez zegoen dimentsio bat erakutsi duenean ezustean.

Iragan mendearen bigarren erdialdean, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, pobrezia konpondutako arazotzat hartu ez bazen ere, gutxienez ez benetan larritzat hartu zen. Herrialderik aberatsenetan, Ongizatearen Estatuaren hedapenak eta sakontzeak pobrezia garrantziko fenomeno sozial moduan ia guztiz desagertuko zela pentsarazi zuen, edo, gutxienez, gaitortutako kontua zela eta haren betiko konponketa denborak ekarriko zuela. Hainbat hamarkadaz, pobrezia fenomenoak ia-ia desagertu egin zen gizarte zientzialarien agendatik, salbuespen kasu batzuetan izan ezik, harik eta langabezia masibo eta epe luzekoaren eta bazterketa sozialeko fenomenoaren agerpenak funtzionamendu ekonomiko eta sozial egokirako prozesu kezkagarri gisa hautematea eragin zuen arte.

Aberastasun gutxiagoko herrialdeen errealitateak bestelako egoera bat erakusten zuen³. Gabekia larriak zeuden, baina ematen zen azalpena izan zitekeen historiari buruzko kontuetan oinarritua, batetik, edo arrazoi klimatiko-naturaletan, etnikoetan eta kulturaletan oinarritua, bestetik. Pobrezia aurre egiteko ahalegina batez ere garapena sustatzearen bidez egin zen. Nagusi zen ideologiak konfiantza zuen hazkunde ekonomikoak eskaintzen zituen aukeretan eta herrialde industrializatuetako ekonomien hazkundearen eta herrialde behartsuenen garapenaren arteko loturan. Pobrezia errealitate bat zen, baina ez zuen arreta espezifiko bat merezi: garapena iristear zen eta hark lortuko zuen pobrezia ezabatzea.

Hala ere, pobrezia harridura sortu zuen ikuspegi guztietatik begiratuta. Lehenik, herrialde aberatsenetan. Iragan mendeko hirurogeiko hamarkadan, Amerikako Estatu Batuak harridura gelditu ziren egiaztatzean berrogeita hamar milioi biztanle dituztela pobrezia forma berri eta zaharretan. Data bertsuetan, Erresuma Batuak jakin zuen bere biztanleen % 14 pobrezia egoeran bizi zela. Datuek ikusarazten zuten ez zela egia harreman automatikoa zegoela hazkundearen eta pobrezia ezabatzearen artean. Ekonomia aurreratuetan hori gertatzen baldin bazen, ez da harrizkoa gainerako herrialdeetan bultzatutako garapen estrategien emaitza desparekotasunen larritzea izatea eta gehiengo bizi maila hobetzeko ezintasuna agerian gelditzea. Hazkundera lortzeko helburuak ezkutatu egin zuen sortzen ari zen pobrezia.

Geroago, hirurogeita hamarreko hamarkadan, berriro bultzatu zen pobrezia kontuan hartzeko joera, neurri handi batean oinarrituko beharrei buruzko ikuspegiaren ondorioz. Baina gutxi iraun zuen horrek, eta dagoeneko laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadan Washingtongo Kontsentsua deritzonaren politikak, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtzak proposatutakoek, lehentasuna eman zieten berriro ere emaitza ekonomikoari, bestelako gizarte-helburu guztien gainetik. Egiturazko erreforma horien ondorioak agerian geratu ziren pobrezia herrialde askotan izan zuen gorakada ikusgarrian. Joan den mendearen amaieran, nazioarteko erakundeek pobrezia gainditze progresiboa iragarri egindako aurreikuspen baikorrak bete gabe zeuden. Horregatik, berriro ere lehen planoan agertu zen pobrezia inguruko kezka, eta Munduko Bankuari hura deuseztatzea enkargatu zitzaion helburu nagusi moduan.

Zer tokitan gaude XXI. mendeko bigarren hamarkada honetan munduko pobrezia aztertzean? Ikuspegiak ez dira uniformeak. Munduko Bankuaren datuen arabera, 2012an 896 milioi pertsona biziraun zuten eguneko 1,90 \$ baino gutxiagorekin; 1990ean, 1.950 milioi ziren; 1981ean, 1.990 milioi. Alabaina, erreferentzia moduan exijentzia-maila handiagoa hartzen bada ere, aldeak ez dira hain ikusgarriak: 2011n 2.200 pertsona zeuden 3,10 \$ baino gutxiagoko diru-sarrerekin, eta 30 urte lehenago, 1981ean, 2.590 milioi ziren. Murrizketa marjinal bat dago; dagoeneko 300 milioi pertsona baino gutxiago dira eguneko hiru dolarreko mugak zedarritutako pobreziatik irteteko gauza izan zirenak.

3 *Garapen bidean daudela esaten den herrialdeetako pobrezia ezagutzeko, ikus BHATTACHARYYA (2017).*

Badago ukitu triunfalista duen diskurtso bat, edo autoasetasunezkoa gutxienez, azken urteetako aurrerapenak nabarmentzen dituena. Horren adibide bat *The Economist* astekaria da, zeinak 2017an muturreko pobrezia ezabatzeko egindako aurrerapen handiak erakutsi zituen, baina aitortuz pobrezia oraindik ere badagoela eta ezabatzea ez dela erraza izango. Nabarmendu zuen 2016an munduan % 9,1 baino ez dela pobrea eta 1981ean pobreak % 42 zirela, kasu honetan eguneko 1,90 \$eko mailarekin neurtuak. Aurrekaririk gabeko murrizpen tasa bat, oso modu grafikoan erakutsia, esanez 1,2 segundoko pertsona bat irteten dela muturreko pobreziatik. Datu horiei ezin zaie erantzun, eta egitate horren berri izan behar da gaur egungo munduko pobrezia ebaluatzeko. Baina zer pobrezia buruz hitz egiten ari da?, zer gertatzen ari da pobrezia murrizpena gelditu egiten den herri jakin batzuetan?, zer adierazle erabiltzen da emaitza horiek neurtzeko?

Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP, 2016), era berean, adierazi zuen giza garapenaren esparruan egindako aurrerapenak oso handiak izan direla azken 25 urteetan: gaur egun, biztanleriak bizitza luzeagoa du, haur gehiago doaz eskolara eta pertsona gehiagok du oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako sarbidea. Hala ere, aitortu zuen giza garapena ez dela parekatua eta giza gabeziak ez direla amaitu. Garapenak ahaztu egin ditu hainbat multzo, komunitate eta gizarte, eta pertsona batzuk bazterrean geratu dira. Batzuek giza garapenaren oinarrizkoa baino ez dute lortu, eta beste batzuek, hori ere ez. Gainera, garapenerako beste arazo batzuk agertu dira, desparekotasunetik aldaketa klimatikoraino, tartean izurriteak, migrazio etsia, gatazkak eta muturreko indarkeria daudela.

Pobrezia gaur egungo egoeraren beste ikuspegi bat eman zuen⁴ EAPNk (Pobrezia Aurrerako Europako Sarea). Pobrezia eta Gizarte Bazterketa Arriskuari buruzko Urteroko VII. Txostenean, nabarmendu zuen, kopuru makroekonomikoen 2008ko krisia atzean geratu dela adierazi arren, hori egia urruna dela Europako biztanleen ia laurden batentzat eta Espainiako biztanleen % 28arentzat. 2016aren amaieran, Europar Batasuneko 502 milioi herritarretik 117,5 milioi pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan zeuden, Eurostaten datuen arabera. Egoera hobetu egin zen 2015ean eta 2016an, baina pobrezia-atalasean dauden pertsonen kopurua 2008an baino 4,1 puntu handiagoa da gaur egun ere Espainiako gizartearen, eta horrek adierazten du 2008. eta 2016. urteen artean tasa hori gehien hazi den herrialdeen artean hirugarrena dela Espainia, aurretik Grezia eta Zipre baino ez dituela (EAPN, 2017).

2. Nork definitzen du pobrezia?

Beraien artean desberdinak diren balorazio horiek pobrezia gaia lantzearen zailtasuna uzten dute agerian, eta ez da neurtze arazo soilik, auzi nagusira garamatzana baizik: nola definitzen da pobrezia? Aurrez esan bezala, pobrezia ideia kultura ia guztietan eta garai ia guztietan dago presente. Eta horiek forma desberdinak hartu badituzte ere, arau orokorra da beti dagoela goian daudenen eta behean daudenen arteko bereizketa. Eta, begien bistakoa denez, behean daudenengan agertzen da pobrezia, gizarteek hari emandako adierak edozein izanik ere.

Goikoen eta behekoen arteko desparekotasun nagusia, modu soil batez esanda, da behekoek sarbide murriztagoa dutela baliabideetara. Kasurik gehienetan, goikoek baliabideetara duten sarbide hobe hori ez dago alderdi materialei soilik lotuta; izan ere, horiekin batera behean daudenen gaineko kontrola ere izaten dute. Kontrol hori bere adierazpen gorenera iristen da goikoek beren buruari eskubidea ematen diotenean jokabide zuzena edo okerra, zer den zuzena eta zer ez, definitzeko. Kontrol horren adierazpenik argiena pobrezia definizioan dago, ezarritako botereetatik egiten baita. Egiten diren pobrezia deskribapenak ez dute islatzen hura pairatzen duten pertsonen bizi duten errealitatea; goikoei interesatzen zaizkien eta goikoei eragiten dieten alderdiak nabarmendu besterik ez dute egiten. Tradizio hori bizirik iritsi da gaur arte, eta gaur egun pobrezia definizioa Munduko Bankuaren markoan egiten da, zeinaren erabaki ahalmena ekonomia indartsuenak dituzten herrialdeen esku dagoen. Horregatik, urte askoan pobrezia kontzeptuari buruzko eztabaida mendebaldarren artean baino ez da gertatu, edo gutxienez mendebaldarrek gehiegizko protagonismoa bereganatu dute, eta Hegoa deritzon herrialdeak definizio horretan esku hartzetik baztertuta geratu dira ia. Pobreen mundu abstraktuaren jabeak, neurri batean, ez dira pobreak.

4 *Pobrezia Aurrerako Nazioarteko Egunean, 2017ko urriaren 17an.*

Pobreziak konnotazio politiko argia dauka, haren definizioa gizarte-ordenaren oinarritzko erreferentzia baita, gizarte batek pertsonen bizi baldintzei buruz ezartzen dituen tolerantzia mugak finkatzen dituen gero. Muga horiek markatu dira eta markatzen dira interes jakin batzuetan oinarrituta; horregatik, pobrezia gizarte-ordenaren parte da, eta mugen aldaketak erresistentzia asko aurkituko ditu boterearen jabe direnen artean. Pobreziak historikoki izan dituen balioak ez dira beti berberak izan, aldatzen joan dira aro historikoen arabera, kontuan hartuta aldagai ekonomikoak, sozialak, politikoak, militarrek eta are moralak eta erlijiosoak ere. Pobreziaren ideian beti izan dute garrantzia pobreen kriminalizazioak, estereotipo kulturalak, justifikazio erlijioso eta politikoak eta gisako kontuek. Horren ondorioa da pobrezia modu neutro batean, aurreiritzirik gabe, hurreratzeko zailtasuna.

Horregatik, beti izan dira pobrezia justifikatu duten diskurtsoak, esanez pobrezia pobreek beraiek eragindako zerbait dela, horrekin pobrezia aurre egiteko betebeharrak edo erantzukizun kolektiboa ukatuz edo ñabartuz. Indibidualtasunaren teorietatik hasita; izan ere, horien arabera, pobreziaren errua pobreek beraiek dute, eta, horrenbestez, ez zaio lagundu behar lasakerian edo alferkerian bizi denari; edo mendekotasunaren kultura baten existentziak eutsitakoak, zeinak gizarte-zerbitzuen aurka jotzeko eta buruaskitasunaren eta lanaren bertuteak goratzeko balio duen; edo are pobreziaren kultura espezifiko bat ere defendatzen da: pobreen bestelako subkultura bat dago, ezaugarri pertsonal, familiar eta komunitarioak zehazten dituen, bere arau eta balio propioekin.

3. Pobreziaren gaur egungo paradigma

Pobrezia buruz egindako proposamen guztiek bi elementu eduki behar dituzte: i) pobrezia kontzeptua, zinetan oinarrituta mugatzen den hartzen duen gizarte-errealitatea; ii) errealitate horren hedadura, denboran zehar izandako bilakaera eta herrialdeen arteko konparazioa kontabilizatzeko aukera ematen duen neurtzeko metodologia; iii) pobrezia ezabatzea edo murriztea helburu duten politikak diseinatzeko elementu gakoak.

Pentsaezina da alde aurretik pobreak zer diren definitzen ez duen edo esku hartuko den errealitate soziala zehazten ez duen gizarte-politika bat; bai eta neurketa bat planteatzea ere argitasunez zehaztu gabe zer neurtu nahi den; ez du zentzurik, gisa berean, fenomeno bat kontzeptualizatzea, haren dimentsioa ezagutzeko eta haren gainean esku hartzeko inolako interesik ez baldin badago. Hiru elementuetatik, historikoki, garrantzi handiagoa eman zaio neurketaren doitasunari eta zehaztasunari, haren atzetik dagoen gizarte-errealitatea jasotzen duten kontzeptu konplexuagoak bilatzeari baino. Beste hitz batzuekin esanda, neurketari buruzko kezka pobrezia kontzeptualizatzeko ahaleginak baldintzatu ditu, halako moldez non pentsatu izan den hura zenbat eta zehaztasun handiagoz kuantifikatu, orduan eta gehiago eta hobeto sakontzen zela hartan.

Neurketaren hegemonia hori ez da kasualitatearen fruitu, pobreziaren kontzeptuak duela gutxi arte eztabaida gutxi izanaren ondorio baizik. Ikuspegi utilitaristak ongizatearen kontzeptioan izandako nagusitasunak pobrezia definitzeko irizpidea errentara edo diru-sarrerara murriztu zuen, eta, aldi berean, maila argiak eta etikoki exijentzia gutxiak ezarri zituen. Azken mendeko kontzeptio nagusia pobreziaren kontzeptu absolutu batean oinarritu da, zeina definitu baita pertsona batek bizirauteko behar duen diru-sarreran edo errentan oinarrituta.

Errealitatea da interes handiagoa erakarri duela pobreak zein diren identifikatzea, pobre zergatik diren galdetzeak baino. Pobrezia harreman kategoriala baino gehiago ordenatze kategoriala gisa harturik, pobreziaren analisia ondorioetan edo sintometan kontzentratzen da, eta horrek guztiak eragin du pobrezia pobreen arazotzat jotzea, haiengandik abiatuta konpondu beharrekoa; haien arazoa, gurea baino gehiago.

Pobreziaren ikuspegi estu hori honako ezaugarri hauetan laburbiltzen da. Lehena, pobrezia erreferente absolutu batetik ulertzen duen pobreziaren kontzeptu baten iraupena: biziraupen biologiko hutsa. Mendearen hasieran aldaketa sakonak izan ziren arren, biziraupeneko gutxieneko erreferentziek ez dute ia aldaketarik izan. Bigarrena, pobreziaren tratamenduen kezka handia haren neurketa izan zen. Neurtzea urruntzea da, eta erreferentzia argia eskatzen du: bizirauteko oinarritzko baldintzak. Horrek agerian jartzen du gaitz daitezkeen eta gaitz behar diren pobrezia egoerak zein diren definitzean exijentzia handiagoak

planteatuko lituzkeen kezka normatibo baten gabezia. Hirugarrena, biziraupenerako baldintzak zehazteak ez du ongizatearen aldez aurreko inongo definiziorik behar. Alderantziz, haren erreferentzia bakarra negatiboa da soilik, eta galdera honi erantzuten dio: zein dira pertsonak ez hiltzeko nahitaezko baldintzak? Horrela, ereduaren ardura –exijentzia normatiboa– ez doa pertsonen biziraupena bermatzen harago.

4. Pobreziaren neurketa⁵

Aurrez esan bezala, pobreziaren neurketa orok kontzeptuaren aldez aurreko definizioa du oinarrian. Horregatik, pobreziaren adierazleak aldatu egiten dira oinarrian duten ikuspuntuaren arabera. Azken hamarkadetan, pobreziaren edukien ulermena hiru kategoriatan banatu daiteke: a) pobrezia diru-sarreraren edo errentaren perspektibatik ikusita, eta biziraupenerako gutxieneko baldintzat jotzen direnak kontuan hartuta soilik; b) oinarritzko beharretan oinarritzen den pobrezia, funtsezkoenetatik hasita, besteak beste, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza, gizarte-bizitza egoki bat ahalbidetzen duten beste exigentzia batzuk barneratzeraino; eta c) gabezia erlatiboa, pertsonaren ikuspegi integralagoa eskaintzen duena eta pertsonen ongizaterako aukerak izateko sarbidea ukatzen zaizkionean definitzen dena.

Pobrezia absolutuaren hegemonia nagusitu izan da nazioarteko proposamenetan. Pobrezia-atalasea, hau da, pobreziaren hasiera markatzen duen maila, zehazterakoan sortzen da zalantza ea zer den egokiago horretarako: errenta edo kontsumoa. Egiten den aukeraren arabera, bi neurketa metodo bereizten dira: a) zeharkako metodoa, horrela deitua atalasea tarteko elementu baten bidez ezartzen duelako, pertsonen edo etxeen eskura duten diru-sarreraren bitartez, zeinak aukera ematen duen baieztatuzko zenbateko hori daukanak potentzialki nahikoa daukala gutxienez jotako ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko; eta b) metodo zuzena, oinarritzat asetatsun emaitzako datuak dituen, hau da, benetan asetako beharrena, horretarako kontsumo errealeko datuak erabilita. Errealitatea da, arrazoi praktikoen ondorioz, neurtzeko eta datuak eskuratzeko erraztasun handiagoa dela medio, metodo erabiliena zeharkakoa izan dela, pobrezia zehazteko irizpidetzat errenta mailak darabiltzana.

4.1. Zeharkako metodoa

Metodo honen oinarritzko tresna pobrezia-lerroa da, zeinak pertsona batek edo etxe batek herrialde jakin batean bizi kalitatearen gutxieneko baldintzetara iristeko behar duen errenta teorikoa zehazten duen, horren azpitik dagoen pertsona edo etxea pobretzat jota. Bi maila bereizi ohi dira: muturreko pobrezia edo landertasuna, elikadura beharrak asetzeko behar den errenta finkatzen duena, eta pobrezia moderatua, edo pobrezia besterik gabe, horrez gain elikaduraz besteko gutxieneko beharrak ere hartzen dituen. Pobrezia-lerroek, beraz, pobreziako irizpide argi eta zalantzarik gabekoa eskaintzen dute, pobreak zein diren zehazteko mekanismoa dira, baina horrek ez du esan nahi haien proposamenak onargarriak direnik ikuspegi etiko batetik begiratuta.

Pobrezia-lerroaren kontzeptua bere formulazioan argia bada ere, arazoak metatu egiten dira horiek eraikitzerakoan. Lehenik, ezin direlako pobrezia-lerro baten oinarriak ezarri kontuan hartu beharreko faktoreak lehenesten eta hautatzen dituzten balio judizioak egin gabe. Bigarrenik, horiek lantzeko metodologia bat baino gehiago dagoelako. Hain zuzen ere, herrialde baterako pobrezia-lerroak proposatzen direnean, desparekotasun handiak izaten dira hartzen den erreferentzia etikoaren eta erabiltzen diren estatistika tresnen arabera.

Herrialde pobreenetako pobrezia-lerroak lantzeko metodologiak bitara murriztu daitezke: a) Munduko Bankuak hartutakoa, pobreziaren aurkako borrokaren helburu globalak finkatzeko erreferentzia gisa erabiltzen dena; b) herrialde bakoitzak behar errealean oinarritzko erreferentzia baten zehaztapenetik abiatuta landutakoa, oinarritzko saskia deritzona.

1990ean, Munduko Bankuak munduko pobrezia-lerroa definitzea proposatu zuen. Horretarako, herrialderik pobreenen multzo bateko pobrezia-lerro nazionalak hartu zituzten, dolarretara aldatu zituzten

5 Atal honen osagarri moduan, ikus: VILLATORO, 2017: 1- 35); eta FERES eta VILLATORO (2012: 9-22).

erosahaltenaren parekotasuna (PPP) erabilia, eta pertsonako eta eguneko gutxi gorabehera 1 \$koa zen pobrezia-lerroa lortu zuten. 2005ean, nazioarteko pobrezia-lerroa berrikusi zen, eta eguneko eta pertsonako 1,25 \$ean finkatu zen. Berrikuspen berrienak eguneko 1,90 \$eko maila ezarri du, muturreko pobrezia neurtzen duen lerro berria. Adierazle berri horrekin, 2015ean 700 milioi pertsona zeuden muturreko pobrezian, munduko biztanleriaren % 10 baino pixka bat gutxiago.

Bi kritika nagusi egiten zaizkio Munduko Bankuaren metodologia horri. Lehen, pobrezia beste dimentsio asko ere badituela, diru-sarreraz edo errentaz gain. Pobrezia askotariko aurpegiak ez ezagutzeak haren irismenaren konplexutasuna justifikaziorik gabe murriztu eta sinplifikatzea dakar. Bigarrena, herrialde pobre jakin batzuen pobrezia-lerroak hartzen dituela erreferentzia moduan, baina ez duela egiten pertsonaren behar objektiboen ebaluaziorik. Hau da, ez dago inolako oinarririk egiaztatzeke ezartzen duen errenta maila nahikoa dela pertsona baten beharrik oinarritzkoenak asetzeko.

4.2. Metodo zuzena edo oinarritzko beharren fokatzea

Metodo zuzenaren abiapuntua da diru-sarrerak pobrezia definizioaren oinarri eta neurri gisa dituen gabezien eta pobrezia bere konplexutasun osoan hartzeko eta neurtzeko berme handiagoak emango lituzketen beste erreferentzia batzuk aurkitu behar diren kontzientzia hartzea. Ezaugarri nagusia da gabezia maila erreala kontuan hartzeko asmoa duela, pertsonak oinarritzkoak jotzen diren beharren asetzeari dagokionez dituzten gabezien ezagutzara zuzenean joz. Horretarako, oinarritzko beharrak zein diren definitzea funtsezkoa bihurtzen da.

Giza eta gizarte-alderdiei arreta handiagoa ematen dien pobrezia pluridimentsionalaren kontzeptu batetik abiatzea dakar, horrez gain beharrak benetan asetzeko Estatuak duen funtzioa eta erantzukizun kolektiboa nabarmentzen duena, hori lortzeko politika eraginkorrak egin daitezkeen kezkatuta.

Printzipioz, oinarritzko beharren fokatzeak pobrezia biziraupen biologikotzat hartzen duen kontzeptua zabaltzen du, gutxieneko beste exigentzia batzuk sartzen baititu pertsonak bizi diren gizarteetako edo komunitateetako kide aktibotzat hartuak izateko, eta ez biziraupeneko eta efizientziako exigentzia familiar edo indibidualetatik abiatuta soilik. Baina ez da erraza sartu beharreko beharrak aukeratzeko eta definitzeko irizpide onargarriak zein diren adostea, ez eta horiek modu egokian islatuko dituzten adierazleak ere.

Zeharkako metodoan errentaren arabera pobrezia-lerroak pobrezia-atalasea finkatzeko balio duen modu berean, ase gabeko oinarritzko beharren metodoak (AGOB) pobrezia-atalasea oinarritzko beharretatik definitzea bilatzen du⁶. Lehenik, kontuan hartuko diren beharrak eta haiei dagokien adierazleak aukeratu dira. Bigarrenik, adierazle bakoitzarentzat balio ideal bat definitzen da, ulertuz horretatik behera dagoena pobretzat joko dela. Ondoren, etxeetako inkestak egiten dira behar horien asetasunaren errealitatea ezagutzeko, horietako bakoitzarentzat gutxieneko gisa finkatu diren mailen arabera.

Oinarritzko beharrak asetzen diren edo ez neurtzeko aukera ematen duten adierazle-proposamen asko landu dira. Teoriatik abiatuta, exigentzia-maila oso desberdinetako adierazleak proposatu dira. Abiapuntutzat hartutako fokatze normatiboen arabera, aldatu egiten dira hala kontuan hartzeko dimentsioen kopurua eta izaera nola behar bakoitza asetzen den edo ez zehazteko finkatutako mailak. Alabaina, auzi honetaz izan diren eztabaida interesgarriez harago, errealitatean pobrezia-atalasea oinarritzko beharren arabera finkatzeko exigentzia gutxiago fokatzea nagusitu da.

Pobrezia-atalaseak planteatzen zuen exigentzia apalaz oihartzeko, ikus dezagun CEPALek (Latinoamerikarako Batzorde Ekonomikoak) 2013an egiten zuen proposamena. Lau dimentsio baino ez zituen kontuan hartzen: ura eta saneamendua, energia, etxebizitza eta hezkuntza. Dena dela, dimentsio bakoitzaren barruan kontuan hartzen zena ere oso funtsezkoa zen. Adibidez, urari eta saneamenduari dagokienez, bi ziren sartutako arloak: ur hobetuko iturrietarako sarbiderik eza eta gorozkiak ezabatzeke sistemen gabezia. Eta horietatik

6 AGOBen metodologia Latinoamerikan garatu zuen laurogeiko hamarkadan NLEk (Nazioarteko Lan Erakundeak), eta, geroago, CEPALek (Latinoamerikarako Batzorde Ekonomikoak) eta NBGPk (Nazio Batzuen Garapen Programak), Pobrezia Gainditzeko Eskualdeko Programa deitutakoan.

aparte ez da osasunaren beste dimentsio batzuei buruzko inolako erreferentziarik jasotzen. Bestalde, ez dago pertsonen elikadurari buruzko inongo adierazlerik ere.


5. Pobrezia multidimentsionala

Aipatutako gabezien aurrean, Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) Oxfordeko Unibertsitateko Giza Garapenerako eta Pobrezia Murrizteko Ekimenarekin (OPHI, ingelesezko bere sigletan) batera, pobrezia multidimentsionalaren proposamena zabaldu zuen (PNUD, 2010).

Abiapuntua da, munduko herrialde gehienetan pobrezia diru falta dela esanez definitzen den arren, pobreek beraien beren pobrezia esperientzia diru-sarreraren gabezia baino askoz zabalagozat dutela. Pobrezia den pertsonak desabantaila asko izan ditzake aldi berean, esate baterako, osasun txarra izan eta behar bezala elikatu gabe egon, ur garbirik edo argindarririk ez izan, lan prekarioa izan edo hezkuntza gutxi jasotakoa izan. Ondorioz, faktore bakar batean zentratzeak, diru-sarreraren adibidez, ez du ahalbidetzen pobrezia benetako errealitatea hautematea. Pobrezia multidimentsionaleko neurriek irudi osoagoa izateko aukera ematen dute, eta agerian uzten dute zein diren benetan pobreak eta zer modutan diren pobre, hau da, esperimendatzen dituzten gabezien multzoa.

NBGPren eta OPHIren ekimenak Pobrezia Multidimentsionaleko Adierazlea (PMA) proposatzen du, pertsona pobreek hezkuntzan, osasunean eta antzeko beste arlo batzuetan aldi berean dituzten gabezia ugariak neurtzeko. Herrialdeen eta eskualdeen arteko konparazioak egiteko aukera ematen du, bai eta herrialde bakoitzaren barruko talde etnikoen artean ere, gune urbanoen eta landa-eremuen artean, bai eta etxeen eta komunitateen beste ezaugarri batzuei buruz ere.

PMAk oinarrizko hiru dimentsio ditu: hezkuntza, osasuna eta bizi-kalitatea. Horietako bakoitzaren barruan hainbat adierazle aurkezten dira, bi aurreneko bietako bakoitzarentzat eta sei hirugarrenarentzat. Adierazleak honako hauek dira: a) Hezkuntza: i) eskolaratze urteak: sarbiderik gabe, etxeko kide bakar batek ez baldin baditu eskolan bost urte osatu; ii) haur eskolaratuak: sarbiderik gabe, eskolaratze urteetan dauden haurrak ez badoaz eskolara; b) Osasun arreta – osasuna: i) haurren heriotza-tasa: familian haurrik hil bada; ii) elikadura: sarbiderik gabe, nagusi bat edo haur bat behar bezala elikatu gabe badago; c) Bizi-kalitatea – gizarte-ongizatea: i) argindarra: sarbiderik gabe, etxeak argindarririk ez badu; ii) saneamendua: sarbiderik gabe, etxeak gutxienezko baldintzak betetzen dituen bainugela egoki bat ez badu edo bainugela partekatua bada; iii) edateko ura: sarbiderik gabe, etxeak edateko uretarako sarbiderik ez badu edo edateko ura etxetik oinez joanda 30 minutu baino gehiagora badago; iv) zorua: sarbiderik gabe, etxeko zoruak zikinkeria badu, hareazkoa, lurrezkoa edo simaurrezkoa bada; v) etxeko erregaia: sarbiderik gabe, sukaldeko lanak egurrez, ikatzez edo simaurrez egiten badira; vi) ondasunak: sarbiderik gabe, etxeak ez badu honako ondasun hauetako bat baino gehiago: irratia, telebista, telefonoa, bizikleta edo motorra. Pertsona bat pobretzat jotzen da ez badu sarbiderik gutxienez kontuan hartutako adierazleen % 30era (NBGP, 2010; eta Feres eta Villatoro, 2012: 27-33).



Iturria: NBGP (2010); Giza Garapenaren Txostena, 2010.

Zenbait herrialdek pobrezia multidimensionalaren beren neurketak garatu dituzte, eta horien artean Txile, Kolonbia, Ekuador eta Mexikokoak nabarmendu dira, dimentsio gehiago eta gutxieneko maila altuagoak sartzen dituztelako. Proposamen hau AGOBen atalaseak formulatutakoa baino exijentzia handiagokoa bada ere, kanpoan uzten dituzte gizarteko sektore zabalek gero eta indar handiagoz oinarritzotzat jotzen dituzten dimentsioak. OPHik berak ere aitortzen du ez direla kontuan hartu beharrean dauden pertsona batzuen esperientziak adierazten dituzten dimentsioetako batzuk, eta horiek sartu beharko lirakeela. Zehazki esanda, bost identifikatzen ditu horien arteko garrantzitsuen gisa: enplegua, haren kalitatearen garrantzia nabarmenduz; pertsonen ahalduntzea, bereziki emakumeena; pertsonen segurtasun fisikoa; ez sentitzea lotsarik edo umiliaziorik; eta ongizate subjektibo eta psikologikoa.

6. Pobrezia kontzeptuaren inflexio puntua

Aurreko pobrezia-atalaseek erreferentzia finko bat markatzen duen pobrezia absolutuko kontzeptu bat dute oinarri, eta pobrezia-ondorioak edo sintomak hartzea kontuan soilik. Azken hamarkadetan aldaketak gertatu dira pobrezia-atalaseari aurre egiteko modu horietan: a) gabezia fisiologikoa baino kontuan hartzen ez dituen eredu batetik gizarte-gabezia modu batzuk (autonomia-gabezia, botere-gabezia, autoestimu-gabezia eta abar) kontuan hartzen dituen eredu batera iragan da; b) zaugarritasun kontzeptua eta hark pobrezia-atalasearekin dituen loturak nabarmentzen dira; c) desparekotasuna eta hark pobrezia-atalasearekin dituen loturak kezka zentrala izatera iragan dira; eta d) pobrezia oinarritzko giza eskubideen urraduratzat jotzen da.

Bilakaera horrek aurreko ikuspegi estua hausten du, eta zerumuga berriak irekitzen ditu bi ildotan: i) pobrezia erlatiboa, zeinak, multidimensionalitatea kontuan hartzeaz gain, pobrezia-atalaseak aukeren arabera ezarri behar direla uste duen, eta ez modu finko batez; ii) pobrezia-prozesuak, horrek kausak kontuan hartzea dakarrelarik, ondorioei soilik erreparatu gabe. Hirugarren aldaketa-lerroa izan da kontuan hartzea gizonen eta emakumeen artean baliabideetarako sarbidean, eta, ondorioz, pobrezian jausteko arriskuan, dauden desparekotasunak.

6.1. Pobrezia erlatiboa

Pobrezia erlatiboa orientazio aldaketa handia da, gutxieneko finko batzuetatik gizarteak eskaintzen dituen gero eta aukera handiagoetara zabaltzen baitu erreferentzia. Biziraupeneko gutxienekoen erreferentzia alde batera uzten baldin bada, nola zehazten da pobrezia-atalasea? Aldaketa gako bat eskatzen du horrek, galdetzerara behartzen baitu, modurik soilenean bada ere, ea zein den ongizate posible eta irisgarria, halako moldez non ongizate hori ez lortzea pobrezia-egoeran egotea den⁷.

Townsendek (2003) formulatu zuen pobrezia erlatiboaren ideia. Aldarrikatzen du pobrezia, objektiboki eta sendotasunez aplikatuta definitzekotan, gabezia erlatiboko kontzeptuko terminoetan egin behar dela. Gizabanakoak, familiak eta biztanleria multzoak pobrezian daudela esan ahal izango da, falta zaizkienean beren gizarteetan ohikoak diren edo, gutxienez, modu zabalean bultzatzen eta gozatzen diren dieta-motak lortzeko baliabideak, jardueretan parte hartzeko aukerak eta bizi-baldintzak eta erosotasunak. Pertsona horiek biziraupenerako arazorik ez izan arren, beraien baliabideak batez bestekotik askoz beherago egoteak eragiten du bizitzako, ohituretako edo jarduera familiar zein pertsonaletako eredu normaletatik baztertuta egotea.

Duela urte batzuetatik hona, Europar Batasunak multidimentsionaltzat, erlatibotzat eta dinamikotzat jotzen du pobrezia. Haren definizioaren arabera, pertsona bat pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan dago honako hiru kasu hauetako batean dagoenean: i) diru-sarrerak ez dira iristen pobrezia-atalasera, diru-sarreraren batez besteko nazionalaren % 60an ezarria, zergak ordaindu eta gero; gabezia larriak ditu bitarteko materialetan, hala nola: ezin ordaindu alokairua, hipoteka edo fakturak, berokuntza, ezusteko gastuak, okela edo arraina; ez eduki autorik, garbigailurik, telefonorik; ezin joan kanpora oporretan urtean astebetetz ere; edo iii) lan-intentsitate gutxiko etxe batean bizi da, zeinean ikasle ez diren 18 urtetik gorakoek beren potentzialaren % 20aren azpitik lan egin duten azken urtean⁸. Espainian ia 13 milioi pertsona daude pobrezia-arriskuan, gutxienez hiru baldintza horietako bat betetzen dutelako, eta milioi bat pertsona egoera ekonomiko eta sozial okerrean daude, hiru faktoreak nozitzen dituztelako.

Pobrezia erlatiboa definitzeko beste modu bat da oinarritzat Senek proposatutako ongizate kontzeptua hartzea⁹, zeinak pertsonen ahalmena, nahi dutena lortzeko duten askatasun erreal positiboen hazkundera, jotzen duen bizi-kalitatea ebaluatzeko funtsezko espaziotzat. Horrela, ongizatea pertsonen ahalmenen hedapena da. Ongizatea definitzea, beraz, auzi zentrala da, eta ez du behar helburutzat azken ideal bat izatea, pertsonak gaizki egoteari noiz uzten dioten eta ondo egoten noiz hasten diren zehaztea baizik. Hortik abiatuta, pobrezia kontzeptuaren funtsa da jakitea noiz duen edo ez duen gizaki batek pertsona gisa daukan potentziala garatzeko aukera, positiboan definitzea pertsona batek bere bizimolde partikular eta ordezkazina abian jartzeko behar dituen gutxieneko funtzionamenduak eta ahalmenak. Pobrezia definitzea da zehaztea pertsona batek noiz daukan edo ez daukan ahalmenak berak merezi duela irizten dion bizitza aukeratzera eta hori gauzatzeko behar diren baliabideak lortzeko ahalegintzera eramango duen bideari ekiteko. Definizio hori gizarte bakoitzaren eta une bakoitzaren arabera izango da, testuinguruaren arabera aldatuko da. Marko sozio-instituzionalak zehaztuko du neurri handi batean zer ahalmen dauzkaten pertsonak, eta, horrenbestez, pertsonak gizartearen barruan dituzten bizitza ibilbide irisgarriak¹⁰.

6.2. Pobretze-prozesuak

Pobretze-prozesuak analisiaren elementu zentral gisa hartzeak hautsi egiten du pobrezia testuinguru sozioekonomikoan bakartutako edo eredu ekonomikoan modu ahulean txertatutako egoeratzat jotzen duen ikuspegia. Goseteek, pobrezia bezala, pertsonak elikagaietarako sarbidea izateko dituzten zailtasunetan izan dezakete jatorria, elikagaien eskasian baino gehiago. Pobrezia, ahalmenen gabezia erlatibo gisa

7 Atal hau zabaltzeko: FERES eta VILLATORO (2012:23-27)

8 Pobreziaren neurketaz eta definizioaz EBn:
<http://www.eapn.eu/what-is-poverty/poverty-in-the-eu-a-very-real-problem/>

9 Amartya Sen, *Ekonomiako Nobel sariduna; ahalmenen ikuspegia formulatu zuen, zeina giza garapenaren proposamenetarako oinarritzat hartu den.*

10 Planteamenduaren parte bat agertzen hasi zen, herabeki izan bazen ere, ELGAko herrialdeetako ongizatearen berrikuspenetan, horietan materialak ez diren dimentsioak ere sartzen baitira. Ikus *Índice para una vida mejor* ekimena: <http://www.oecdbetterlifeindex.org/es/#/111111111111>

definituta, ulertu behar da espazio politiko batzuetan jokoan jartzen diren eta pertsonen ongizatea lortzeko eta pobreziatik irteteko dauzkaten aukerak baldintzatzen dituzten prozesu erlazional eta instituzionalen emaitza gisa.

Galdera handia da ea zergatik huts egiten duten pertsonen beren ongizatera iristeko behar dituzten baliabideak lortzeko zereginen. Pobrezia ez da iraganeko oinordetza bat; haren existentzia hura egunero sortzen duten, hari iraurarazten dioten eta hura betiko bihurtzen duten prozesuen ondorio da. Eta prozesu horiek aldatu egin daitezke.

Pobrezia ezagutzeak harreman ekonomikoak eta sozialak zein ekoizpen eta banaketa harremanak ezagutzea eskatzen du, pobretze-prozesuak horietatik eratoritzen baitira. Horiek, pertsona bakoitzaren kasuari edo haren inguruabar partikularrei begira baino gehiago, joko-arauen mapak izaten dituen aldaketei begira azaltzen dira, hala nola: enplegu falta edo eskaera ahula, elikagaien prezio erlatiboen hazkundea, zerbitzu publiko eskuragarrien gabezia eta abar. Hau da, pobrezia ez da, besterik gabe, pertsona baten zorigaitzaren ondorio. Gizartean bazterketa prozesuak sortzen dira, eta horiek eragiten dute pertsona batzuek, edo are multzo batzuek ere, beste batzuek baino gabezia gehiago eta handiagoak nozitzea, eta guztiek aukera berak ez izatea beren potentziala goreneraino garatzeko. Bazterketa-mekanismo horiek dinamikoak dira, eta aldatu egiten dira botereak ezarritako joko-arauak batzuentzat beste batzuentzat baino onuragarriagoak izan ahala (NBGP, 2016:6).

Pobrezia fenomeno erlazionala da, desperekotasunaren adierazpenik esanguratsuen. Haiei itxurazko bizitza bat bizitzeko behar diren baldintza materialetarako sarbidea ukatzeaz gain, pobreak sozialki baztertu egiten dira, ez dute ia batere presentzia politikorik erabaki politikoetan, botoa emateko tenoretik aparte, eta, kasu askotan, errespetu falta handi baten biktima dira eguneroko bizitzako praktikan eta horien bitartez. Pobre izatea da harreman sozial, ekonomiko eta kulturaletan perekotasun ikuspuntu batetik parte hartzeko aukerak ukatuak izatea. Hortik, ondorio bat: aldaketaren beharra eta hori ez dela etorriko ahaldunderik gabe, ez baldin bada baztertuta daudenen botere-gabezia ordezkatzen.

6.3. Emakumeak eta pobrezia

Pobreziari aurre egiteko modua, hala kontzeptuari nola neurketari dagokionez, modu neutroan egin da tradizionalki, gizonak eta emakumeak bereizketarik gabe integratuta sail berean, arreta banatua eskatuko lukeen desperekotasunik ez balego bezala. Baina gero eta agerikoagoa da emakumeek gizonen baino desabantaila gehiago dituztela, hala gizartearen barruan nola pobreen artean.

Tratuan dagoen desperekotasun hori argitara ateratzeko kezkatik abiatuta, joan den mendeko 70eko hamarkadan pobreziaren feminizazioa kontzeptua sortu zen. Haren zabalkundea handitu egin zen 90eko hamarkadako urteetatik aurrera, Pekinen 1995ean egin zen Emakumeen Nazioarteko IV. Konferentziaren ondoren. Terminu eztabaidatua izan den arren, pobreziaren feminizazioa emakumeen pobretze material gero eta handiagoa, haien bizi-baldintzen okertzea eta haien oinarriko eskubideen urraketa adierazteko darabil feminismoak.

Kontzeptu horrekin, agerian uzten zen gizonen eta emakumeen modu desberdinean nozitzen dutela pobrezia, eta generoa pobrezian eragina duen faktore bat dela, adina, etnia, kokapen geografikoa eta beste batzuk bezala, eta emakumeek pobreziarekiko duten zaurgarritasuna handitu egiten duela. Ikuspegi horretatik begiratuta, pobre izateko probabilitatea ez da zoriaren arabera banatzen biztanle guztien artean, eta pertsona multzo batzuentzat, eta, zehazki, emakumeentzat, probabilitate hori handiagoa da.

Generoaren perspektibatik, asmoa da pertsonen pobrezia esperimendatzeko duten aukera handiagoan edo txikiagoan eta pobreziak gizonen kasuan edo emakumeen kasuan dituen ezaugarrien desperekotasunaren eragina duten genero-faktoreak identifikatzea. Gainera, genero-ikuspegia haren ondorioen deskribapenetik harago doa, eta haren kausak ikertzeko helburua ere badu, fenomenoaren prozesu moduan ulertuta eta hari perspektiba dinamikoagoa emanda.

Genero-ikuspegi batek eskatzen du emakumeen baliabide fisiko eta finantzarioetara, lan-merkatuetara, kalitateko hezkuntzara eta gizarte-babeseko sistemetara iristeko duten posizioa ulertzea. Sarbide horietarako

gizonekin alderatuta dituzten oztopoen ondorioz, zailtasun handiagoak dituzte pobreziatik irteteko eta hartan berriro ez jausteko. Alabaina, genero-ikuspegia bereganatzeak ekonomiari modu ez tradizionalan begiratzea eskatzen du. Sexuaren arabera lan-banaketak, emakumeei etxeko espazioa esleitzean, desparekotasuna eragiten du haiek genero gisa baliabide material eta sozialetara iristeko zein erabaki politiko, ekonomiko eta sozial nagusietan parte hartzeko dituzten aukeretan. Hain zuzen ere, emakumeek, aktibo material erlatiboki urriagoak izateaz gain, aktibo sozial ahulagoak ere badituzte, eta horrek arrisku handiagoko egoera batean kokatzen ditu pobrezia-aren aurrean.

Emakumeek, sexuaren arabera lan-banaketa¹¹ esleitzen zaizkien espazio mugatuen eta banaketa horretan oinarrituta eraikitzen diren gizarte-hierarkien ondorioz, baliabideetara sarbide urriagoak izateak gabezia egoera bat sortzen du hainbat gizarte-esparrutan, batez ere elkarrekin estu lotutako hiru sistematan: lan-merkatua, ongizate edo gizarte-babes sistema, eta etxeak¹².

Emakumeen egoera berezia aintzat ez hartzearen ondorioen adibide bat etxeetako diru-sarreretan oinarritutako pobrezia-adierazleak dira. Horien arabera, etxe batek pobrezia-lerrotik gorako errenta edo diru-sarrera baldin badu, etxe horretako kide bakar bat ere ez da pobrea. Dena dela, uste horrek funtsezko egitate bat ahazten du: etxeak ez dira nahitaez berdinezaleak. Alderantziz, gatazka kooperatiboen gune gisa funtzionatu ohi dute, zeinetan gizonek, multzo gisa, jakin izan duten baliabideetara, hala etxeetara nola publikoetara, duten sarbide pribilegiatua erabiltzen, beren interesak defendatzeko eta sustatzeko, askotan emakumeen kaltetan.

Beste hitz batzuetan esanda, etxe arloko desparekotasunak itxuraz genero-arloan neutroak diren gainerako instituzioetako desparekotasunekin nahasten dira, hala nola, merkatuetakoekin, Estatukoekin eta komunitatekoekin, eta genero-desparekotasuna gizarte osoari eragiten dion fenomeno bihurtzen dute. Horrek esan nahi du gizonek eta emakumeek pobrezia modu desberdinetan eta desparekotasunekin esperimendatzen dutela, eta prozesu desberdin baina bata bestearekin lotutako bidez egiten direla pobre. Pobrezia-aren konponbidea ezin da etorri emakumeen lan-merkatutako sarbidea hobetzeko politika berezietatik, gaur egungo sistema sozioekonomikoaren funtzionamenduaren oinarritzko egituren aldaketa sakon batetik baizik, horien artean botere-harreman patriarkalak daudela (Pérez Orozco, 2003).

Pobrezia-aren feminizazioaren kontzeptio estu bat saihestu behar da, bakarrik dauden emakumeen etxeetako problematika berezia mugen barruetara murrizten duena. Alderantziz, askoz ere harago doa, eta agerian uzten du ardatz nagusi gisa merkatua duen gizartearen antolakuntza bat, lehen kezka errentak sortzea duena eta ez giza beharrak asetzea. Honako hau da ekonomia feminista gehienek defendatutako planteamendua: jarduera ekonomikoan azken helburuak bizitzaren iraunkortasuna izan behar du, hori esatean ulertuz bizitzaren erreproduzitze zabaldua, baliabide materialak ez ezik, zaintzako eta afektuko testuinguruak eta harremanak ere behar dituen.

Etorkizunari begira agertzen diren desafio ugarien artean, funtsezko bat emakumeen pobrezia-aren irismenaren eta izaeraren adierazle zehatzagoak eta osoagoak edukitzea da, gizonen eta emakumeen diru-sarrera eta errenta gabeziez gain etxe barruko aktiboetan, denboran eta boterean dauden genero-desparekotasunak ere neurtuko dituen. Beharrezkoa da identifikatzea elementu horiek nola eragiten dioten batak besteari eta nola gurutzatzen diren ezaugarri transbertsalekin, besteak beste, adina, arraza, etnia eta ahalmen bereizgarria.

11 *Latinoamerikan, lan-merkatutik kanpo dauden emakumeen % 51,6k adierazten du horren arrazoia dela etxeko lanak eta zaintza lanak egin behar dituela, eta gizonen % 5,3k baino ez du arrazoi hori aipatzen (NBGP, 2018).*

12 *NBGPn (2018), NLEren Latinoamerikarako datuen arabera, desparekotasun handiak jasotzen dira gizonen eta emakumeen artean lan-merkatutako sarbidean, nahiz eta aurrerapen batzuk egin diren. Adibide batzuk: i) emakumeek dauzkaten enpleguak hirugarren sektorean kontzentratzen dira (% 75,5), bereziki zerbitzuetan eta merkatarizan (% 67,9), gutxien ordaindutako eta gizarte-babes gutxieneko lanak eskaintzen direnetan; ii) emakumeak gehiengoa dira gutxienekotik beherako soldatak jasotzen dituzten artean, bai eta lan informala dutenen artean ere (emakume langileen % 53,7k mota horretako enplegua dauka), eta gizon azpi-enplegatuak halako bi dira bi emakume azpi-enplegatuak; iii) balio bereko lanengatik soldaten arrakala mantentzen da: emakumeen soldata gizonen soldataren % 57 da beregainak diren langileen artean, eta emakumeak azpi-ordezkatuta daude erabakimen postuetan; iv) emakumeek gizonen parte-hartze urria duten eta sozialki eta ekonomikoki gutxietsita dauden jarduera gutxi batzuetan kontzentratzen jarraitzen dute, eta gizonen parte-hartzea, aldiz, dibertsifikatu egin da.*

7. Pobrezia fenomeno bizia da

Batzuetan, pobrezia oinordetzan jasotako egoera moduan aurkezten da, oraindik sendabiderik aurkitu ez zaion gaitz baten antzeko zerbait balitz bezala. Baina pobrezia fenomeno bizia da, egunero berritzen dena eta adierazpen berrietan agertzen dena.

Batetik, batzuek uste dute pobrezia giza izaeran eta gizartearen funtzionamenduan sakon errotutako fenomenoa dela. Ikuspegi horretatik begiratuta, pobrezia egoera natural moduan hautematen da. XVIII. mendearen erdialdetik aurrera aldaketa sakona izan arren, eta XX. mendearen bigarren erdialdean garapen ekonomiko ikusgarria, fenomenoaren neurri bateko ezinbestekotasunaren ikuspegia ez da erabat desagertu gaur egun ere, edo gutxienez uste da zailtasunak ezin gaindituzkoak direla epe ertainean.

Bestetik, pobrezia gure garaiko berezko inguruabarrek markatutako fenomenotzat jotzen da, ez hainbeste lehen ez zegoen gauza berria dela iritzita, ezpada haren gaur egungo zabalkundea eta iraupena azaltzeko helduleku bakarra, planetak gaur egun ematen dituen aukerak kontuan hartuta, eredu ekonomiko baten funtzionamendu arauak direlako, zeinek ez duten helburutzat pobreziaren ezabaketa, edo, gauza bera dena, haren existentzia onartzen duten.

Gaur egun aldaketa historikoko egoera batean gaude. Kontua ez da prozesu partikular bat gertatzen dela soilik, baizik eta aldaketa erreferentzia den aro batean sartu garela. Jarraitu daiteke pobreziaz pentsatzen betiko kategoriekin? Zer desafio aurkezten digu aldaketa prozesu honek? Borroka politiko bat gertatzen da gaur egungo ordena defendatzen dutenen eta joko arauak berridatzi nahi dituztenen artean. Gizarte berrien diseinua eta gauzatzea ulertzeko eta horietan parte hartzeko, arazo berriak adierazteko gauza diren kategoriak aurkitu behar dira. Nahitaezkoa da pobreziaren errealitate berriak egoki deskribatzeko lengoia aurkitzea, eta, errealitate horietarako, ez dute balio orain arte lan egiteko erabili izan ditugun kategoriak.

Ikus ditzagun bi adierazpen garrantzitsu, pobretze-prozesuek esperimendatzen dituzten aldaketen adibide moduan. Lehena pertsona langile pobreen agerpena da. Orain arte politika bat egon baldin bada pobrezia ezabatzeko eztabaidatik kanpokotzat eta eraginkortzat jo izan dena, hori enpleguaren sorrera izan da. Pertsona pobreak lan-munduan sartzea haiek egoera horretatik ateratzeko tresna onena zela uste zen. Baina EAPNren txostenak (2017) nabarmentzen du lana duten pertsonak ere pobreak izan daitezkeela, eta pobre mota berri bat dagoela dio, supermerkatuan ilara egiten duena, kalean eskean aritu gabe. Gaur egun kalkulatu da europar langileen % 10 pobrezia egoeran dagoela. Lotura bat dago enplegu-modu ez konbentzionalen eta lanean pobrezia-arriskuan dauden europarren ehunekoaren hazkundearen artean, eta horien kopuruak gora egin du atzeraldiaren garaian. Bereziki pobrezia-arriskuan daude beraien borondatea hori ez izan arren lanaldi partzialean aritzen diren langileak, aldi baterako kontratua dutenak eta lan autonomoko erregimenean daudenak haien ardurapeko langilerik izan gabe (EUROFOUND, 2017)¹³.

Beste adierazpena desparekotasun gero eta handiagoa da, azken hamarkadetan dimentsio kezagarriak hartu dituen fenomenoak. NBGPren txostenean (2016) datu bat nabarmentzen zen: munduko biztanleriaren sektore txiki baten aberaste gero eta handiagoa, non % 1ek aberastasun guztiaren % 46 daukan¹⁴. Diru-sarreraren desparekotasunaren ondorioak baliabideak izateko aukeratik askoz harago doaz, eta gako diren alderdi politiko eta sozialetara iristen dira. Desparekotasunean eragiten dute, ongizatearen beste dimentsio batzuetan, eta baztertutako multzoek erakundeak eraldatzeko dituzten ahalmenak ahultzen dituzte. Desparekotasuna pertsonak eta multzoak erabakitze-esparruetatik baztertzen dituzten beste pobrezia-modu batzuen hasiera izatea erabakigarria da. Erabakigarria da desparekotasuna dela pertsonak eta multzoak erabakitze-esparruetatik baztertzen dituzten beste pobrezia-modu batzuen hasiera.

13 Kontu honi buruz, ikus: María Luz de la Cal (2014); *La Pobreza laboral*, Boletín de recursos de información, 40. zenb., Hegoa:

http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/262/Boletin_hegoa_n%C2%BA40.pdf?1488539830

14 Ugariak dira desparekotasun gero eta handiagorekin datuak jasotzen dituzten txostenak, nazioarteko erakundeek egindakoetatik erakunde akademikoek egindakoetaraino. OXFAMen lanek zabalkunde berezia izan dute, *Una economía para el 99%* txostenak, adibidez (<https://www.oxfam.org/es/informes/una-economia-para-el-99>), zeinak zioen 8 pertsonak (8 gizonek errealitatean) 3.600 milioi pertsonak, gizateriaren erdirik pobreenak, adinako aberastasuna dutela.

Saskia Sassenek (2015) ohartarazten du arriskutsua dela neurketa-arazo hutsean geratzea desparekotasunari, pobrezia eta beste bidegabekeria batzuei buruz aritzean. Alderdi kuantitatiboei baino erreparatzen ez badiegu, ez dugu aurrean daukagun eta aurre egin beharko geniokeen errealitate zabalagoa hautemango. Horrela, "egozteak" hitza darabil gertatzen ari den errotiko aldaketa nabarmentzeko, haren ustez lengoia berria behar baita adierazteko gero eta pertsona gehiago daudela egozte-prozesuen mende. Dagoeneko ez du balio "epe luzeko langabezia" aipatzeak, inoiz baino pertsona heldu gehiago daudenean inoiz enplegu bat izan gabekoak; adierazpen lausoegia da, eta ez du jasotzen egiturazko baldintza errotikoa bihurtu dela. Antzera gertatzen da "pertsona desplazatu" moduan identifikatutako milioika pertsonaz aritzean, ia segurua denean ez direla beren etxeetara itzuliko. Errealitatean, batzuk zein besteak gizartetik egotziak izan dira. Egozte horiek ez dira kasualitatez gertatzen; ekonomiaren hazkundearekin lantzen dira eta harekin batera bizi dira. Lanketa horren mekanismoak oinarritzko politiketatik teknika konplexuetara doaz.

Beste adierazpen batzuk ere indar handiz agertu dira, eta haietan oinarrituta hainbat adjektibo jarri zaizkio pobrezia hitzari; horrela, bada, gaur egun honako hauetaz mintzatzen da: pobrezia energetikoa, pobrezia kronikoa, ingurumen pobrezia, haurren pobrezia, pobrezia teknologikoa eta abar. Horietako bakoitzak protagonismo berezia bereganatzen duten gabezia jakin batzuen handitzea erakusten du. Horien artean dramatikoa, beharbada, haurren pobrezia da, hazkundera izaten ari den fenomeno, are herrialde aberatsetan ere, non haur pobreen ehunekoa pertsona heldu pobreenaren gainetik dagoen.

8. Beste diskurtso baten beharra

Hamarkada batez baino gehiagoz, nazioarteko erakundeek (NDF, ELGA, NLE eta NBE, beste batzuen artean)¹⁵ munduko desparekotasun gero eta handiagoak hazkunderari, kohesio sozialari eta enpresa komunitateari egingo dizkion kalteei buruz ohartarazi dute. Alabaina, desparekotasunaren hazkundera hori ez da kasualitatea, ezarri diren politiken ondorio baizik. Europar Batasunaren kasuan, esan daiteke 1990eko hamarkadaren erdialdetik desparekotasuna neoliberalismoaren europar politikarien lehentasunek bultzatu dutela batik bat, zergen jaitsiera bultzatu baitute, eta birbanaketa sektore aberatsenetara, eta ez merkatuaren indarrek soilik.

Desparekotasunak dakarren desafioa aitortu arren, botere-guneetatik ematen zaizkion erantzunak gehiago dira aringarriak, eraldatzaileak baino. Nagusi den diskurtsoak hazkundera inklusiboa, pobreen aldeko hazkundera, gizarte-inbertsioa eta, indar gutxiagoz, beste gizarte-itun baten beharra terminoak erabiltzen ditu, besteak beste. 2008-2009ko mundu mailako finantza-krisiaz geroztik, mantra berria "globalizazioa inklusiboagoa egitea" da. Dena dela, hazkunderaren inklusioari buruzko eztabaidak aurre egiten ez zaien kontu normatibo batzuk planteatzen ditu, eta ereduaren egiturazko erreformak ere ez dira kontuan hartzen.

Nazioarteko agentzia bakar batek, UNCTADek (2017), aitortzen du beste gizarte-kontratu baten beharra dagoela XXI. mendean, hazkundera inklusibotik eta gizarte-inbertsionetik haragoko neurriak hartuko lituzkeena. XXI. mendean bigarren hamarkada honetan, dio, globalizazioaren onurak baliatzen jakingo duen ikuspegi anbiziotsua behar da, baina bai eta haren desorekak konpentsatzen ere, mundu berri aldakor honetan sortuko diren ekonomia berriak inklusiboak eta iraunkorak izan daitezten.

Pobrezia ulertzeko eta borrokatzeko moduari buruzko gogoetak ahalbidetu du agerian uztea hura definitzeko erabiltzen den ikuspegiak zer konplexutasun eta zer garrantzia duen. Azken finean, gizarteak bereganatzen duen pobrezia-kontzeptuak gizarte horren bizikidetzaren oinarriak islatzen ditu, eta saiakuntza banku gisa balio du gizarte horrek pertsonaren balioaz duen sineste graduaz.

Pobreziaren kontzeptzio hegemonikoetan, gako diren bi urritasun nabarmentzen dira: lehena, onargarri beharko ez lukeenari buruzko exijentzia ahula; bigarrena, aurrekotik eratorria neurri handi batean, estrategia ekonomikoen eta pobrezia-egoeren arteko deskonexioa. Paradigma aldaketa behar da, pobreziaren

15 Munduko Ekonomia Foroak ere desparekotasun gero eta handiagoaren arriskuak onartu zituen Davosko 2018ko bilkuran, eta ohartarazi zuen azken bost urteetan hazkundera ez duela balio izan pobrezia murrizteko, ez eta etxeetako diru-sarrerak handitzeko ere (*El País*, 2018ko urtarrilaren 20a).

arazoari erabakimenez aurre egingo bazaio. Kezka horretatik abiatuta, ezinbestekoa da gaur egun nagusi diren pobrezia paradigmen esanahia sakondu eta kritikatzeko.

Lehenengoa, eta garrantzitsua, defendaezina dela pobrezia biziraupenarekin parekatzea. Erreferentzia hori, ikuspegi etikotik begiratuta gure gizarteak gizakiari buruz aldarrikatzen duenarekiko kontraesankorra izateaz gain, zentzurik gabekoa da gaur egun, ondasunen eta zerbitzuen eskuragarritasun gehituak eta, batez ere, teknologiak aurreikustea ahalbidetzen dituen espektatibek eskaintzen duten agertokian, posible delarik planteatzea, lehen aldiz gizateriaren historian, pertsonak beren gutxieneko ahalmenetara iristeko helburua. Biziraupen hutsa pobrezia erreferentziatzen jotzen jarraitzea, etikoki, gizakiak proiektu gisa duen balioa ukatzea da, eta, ekonomiaren ikuspegitik, ekonomiari ongizatearen arazoa konpontzeko ahalmena ukatzea edo, are okerragoa izango litzatekeena, ez planteatzea hori haren lehentasunezko helburu moduan.

Pobrezia bizitzaren atalase gisa ikusteko gauza ez den gizarte bat, hura heriotzaren aurreko defentsa baino ikusten ez duena, ez da etorkizunean sartu edo hartan sartzeko beldur da, eta eutsi egiten dio sartu beharri. Pobrezia ongizateetik ulertzea, bizitza onaren atalasetik, gizartearen utopia bat edukitzea da; pobrezia biziraupenetik ulertzeak islatzen du bestelako ostertzak proposatzeari edo irudikatzeari uko egiten zaiola. Pobrezia aurrerako borroka gaur egun ulertzen den moduan agerian dago etorkizun desiragarri baten ahalasuna edo gabezia. Nazioarteko komunitateak pobrezia ezabatzearen inguruan planteatzen dituen helburuek etorkizunarekiko apustu ahula ezkatzen dute. Pobrezia ezabatze helburuek ez dute bestelako agertoki batera eramaten; besterik gabe, karga baten galera dakarte, metaketaren bidean deserosoa den bidaide batena. Pobrezia gabeko mundu bat pentsatzea ongizatearen lorpena zalantzan jartzen duen gizarte bat pentsatzea da, ongizate posible eta desiragarria zer den planteatzen duena.

Gabezia handiena da helburutzat jotzeko moduko beste agertoki bat proposatuko lukeen "errelatorik gabe bizi garela". Gure orainaldia narratiborik gabeko eta norabiderik gabeko orainaldia da, hausturaren, katastrofearen, etenduraren¹⁶ ideia immanentearen mehatxupean beti. Aldaketan dagoen gure munduaren errealitatea onartzeak beste kontaketa bat sortzea eskatzen du ezinbestean, alternatiboa, esparru askotan, ez ekonomikoan soilik. Komunitate bateko kide garela pentsaraziko digun diskurtso indartsua behar da, eta hori justiziatik eraikitzeak konpromisoa sustatuko duena. Baliorik gabe, ez da gizarte eta ingurumen arazoei buruzko kezkarik izango, hots, gaur egun gizarte lokal zein globaleko arazo zentralak direnei buruzkorik. Kontua ez da diskurtso ideal bat egitea, baina bai desberdina dena aurrez irudikatzeak eta aldaketa sustatzeko balioko duena, testuingurua kontuan hartuta. Kontua ez da dena hartuko lukeen teoria itxia eskaintzea, besterik gabe aldaketari zentzua emango liokeena: bizitzaren zentzua praktika bat da proposamen bat baino gehiago, bizitzeko modu bat. Ez da arazo bati emandako konponbidea, modu jakin batean bizitzea baizik. Ez da diskurtso metafisikoa, etikoa baizik.

Bibliografia

ATKINSON, A.B (data gabe); "La Pobreza", (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen: <http://www.eumed.net/libros-gratis/ebooks/textos%20breves/07%20-%20La%20Pobreza/La%20Pobreza%20-%20William%20Atkinson.pdf>

BHATTACHARYYA, Sambit (2017); "The Historical Origins of Poverty in Developing Countries" in: *The Oxford Handbook of the Social Science of Poverty*, (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen: <http://www.oxfordhandbooks.com/>
<http://www.oxfordhandbooks.com/view/10.1093/oxfordhb/9780199914050.001.0001/oxfordhb-9780199914050-e-13?rkey=NJFYs&result=1>

16 Marina Garcésen liburua (2013), *Un mundo común* (Edicions Bellaterra, Bartzelona), gure garaian komun denaren ideari eta exijentziari buruzko gogoeta sakon eta iradokitzailea da.

- MUNDUKO BANKUA (2018); "Panorama de la pobreza", 2018ko apirilaren 11 (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
<http://www.bancomundial.org/es/topic/poverty/overview>
<http://www.bancomundial.org/es/topic/poverty/lac-equity-lab1/poverty>
- EAPN (2017); *El estado de la pobreza. Seguimiento del indicador de riesgo de pobreza y exclusión social en España 2008-2016*, (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
https://www.eapn.es/estadoddepobreza/ARCHIVO/documentos/Informe_AROPE_2017.pdf
- Resumen ejecutivo (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
https://www.eapn.es/estadoddepobreza/ARCHIVO/documentos/Informe_AROPE_2017_Resumen_Ejecutivo.pdf
- EUROFOUND (2017); *In-work poverty in the EU*, Publications Office of the European Union, Luxenburgo, (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
https://www.eurofound.europa.eu/sites/default/files/ef_publication/field_ef_document/ef1725en.pdf
- FERES, Juan Carlos eta VILLATORO, Pablo (2012); *La viabilidad de erradicar la pobreza: Un examen conceptual y metodológico*. CEPAL Estudios estadísticos y prospectivos saila, 78. zenbakia, 2012 (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen: <https://repositorio.cepal.org/handle/11362/4781>
- PNUD (2010); *Informe sobre Desarrollo Humano 2010. La verdadera riqueza de las naciones*, New York: Nazio Batuen Garapen Programa, (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_2010_es_complete_reprint.pdf
- PNUD (2016); *Informe sobre Desarrollo Humano 2016. Desarrollo Humano para todos*, New York: Nazio Batuen Garapen Programa, (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
http://hdr.undp.org/sites/default/files/HDR2016_SP_Overview_Web.pdf
- PNUD (2018); *Cuadernos de Desarrollo Humano Pobreza multidimensional e igualdad de género* (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
http://www.latinamerica.undp.org/content/rblac/es/home/library/womens_empowerment/gender-papers--multidimensional-poverty-and-gender-equality-.html
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2003); "Feminización de la pobreza. Mujeres y recursos económicos". Materiales de reflexión CGT, 3. zenb., 2003ko apirila (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
<http://in-formacioncgt.info/ateneo/materiales-reflexion/MR03.pdf>
- SASSEN, Saskia (2015); *Expulsiones. Brutalidad y complejidad en la economía global*. Katz Editores, Buenos Aires eta Madril.
- SPICKER, Paul, ÁLVAREZ LEGUIZAMÓN, Sonia eta GORDON, David [arg.] (2009); *Pobreza. Un glosario internacional*, CLACSO, 2009 (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
<http://biblioteca.clacso.edu.ar/ar/libros/clacso/crop/glosario/glosario.pdf> <http://www.crop.org/viewfile.aspx?id=302>
- TOWNSEND, Peter (2003) "La conceptualización de la pobreza". Comercio Exterior 53 libk. 5. zenb., 2003ko maiatza, 445-452 or. (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
<https://consejopsuntref.files.wordpress.com/2017/06/townsend.pdf>
- UNCTAD (2017); *Informe sobre el Comercio y el Desarrollo, 2017. Un New Deal mundial como alternativa a la austeridad. Panorama general*. Nazio Batuen Biltzarra Komertzioaz eta Garapenaz. Nazio Batuak, New York eta Geneva, 2017, (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
http://unctad.org/es/PublicationsLibrary/tdr2017overview_es.pdf
- VILLATORO, Pablo (2017); "Medición multidimensional de la pobreza" CEPAL, Santiago, (2018ko maiatzaren 14an kontsultatua), eskuragarri hemen:
<https://www.cepal.org/sites/default/files/presentations/08-10-cepal-pobreza-multidimensional-pvillatoro.pdf>

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.

